

ARARTEKOA



2000ko apirila

2.zenb.

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 1999-LABURPENA

Herritarrak hobeto defendatzeko

Egoitza eta bulego nagusi berriak

Ararteko erakundeak egoitza eta bulego nagusi berriak ditu Gasteizen 2000ko apirilaz gerortik. Prado kaleko 9. ean daude, Gasteiz erdi-erdian, Eusko Legebiltzarra handitzeko egin den eraikuntza berria. Arartekoaren egoitzak, ordea, Prado kaletik propio egin den sarrera independentea du.

Harrera zuzeneko bulegoa, herritarrek euskal administrazio publikoen kontra dituzten keak jasotzeko zerbitzua, behean dago, bertaratu nahi dutenak kaletik zuzen-zuzenean sar daitezzen.

Arartekoa Interneten

Urte hasieratik aurrera nahi duten herritar guztiak erakunde honen zeregin, lan egiteko era eta zerbitzuei buruzko informazioa jaso dezakete Interneten, www.ararteko.net web orrian. Bertan agertzen denaren ulermena errazteko pertsona gorri egokitutako lengoia erabili da informazio atalik garrantzitsuenean. Laster, itsuentzako egokitzapen bat ere egingo da. Interneteko orri honen bidez kexadunak erreklamazio bat helaraz diezaioke Arartekoari une horretantxe eta aulkitik altxatu beharrik gabe. Web orrian dagoen formularioa bete besterik ez dago.



Arartekoaren egoitza berria Gasteizko Prado kalean



Web orria: www.ararteko.net

ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN

• Administrazioaren jarduera irregularrak konpondu egiten dira kasuen %80an.

• 61 ofiziozko jarduketa burutu dira. Ia erdiak Gizarte Ongizatearen alorrekoak izan dira.

• 2.363 herritarrek bisitatu dituzte Gasteizko, Bilboko eta Donostiako harrera zuzeneko bulegoak.


• 1999. urtean 1.283 kexa jaso zituen. Erreklamazio hauetatik 62k kexa berdin-berdineko multzoa osatzen dute.

• Ogasuna da erreklamazio gehien (%16,4) jasotzen dituen jarduera alorra, eta ondoren, Herri Lanak eta Zerbitzuak (%12,6) eta Hirigintza eta Etxebizitzak (%12,2).

• Udalak dira kexa gehienak (%40,7) eragiten dituzten administrazioak. Jarraian Eusko Jaurlaritza (%36,1) eta foru aldundiak (%17,4).

• Erreklamatuzaileek balorazio ona eman diote Arartekoaren eskuhartzeari eta horietatik %90,6ak, beti edo kasu jakin batzuetan erakunde honetara jo dezatela gomendatuko lieke administrazioaren batekin arazoak dituztenei.


ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-1999)



¹ 1.143k berdin-berdinak diren bi kexa-multzo osatzen dituzte.

² 62k berdin-berdinak diren kexa-multzo bat osatzen dute.

KEXEN JATORRIZKO LURRALDEA 1999



DATU OROKORRAK

1999an erakundeaz aztertu diren eta tramitazioa bukatu den kexen %33,22 administrazioaren jardueran irregularitasunen bat egon den erreklamazioetatik jo da. Azpimarratu behar da kexa horien erdian baino gehiagotan, Arartekoaren eskuhartzearen fase desberdinetan, gomendiorik egin behar izan gabe lortu dela eragindako administrazioak kexa sortarazi zuen jarduketaren aldaraztea. Gomendioa egin behar izan denean, erantzuna aldekoa izan da kasuen %60an.

1999an 1.283 kexa aurkeztu dira. Horiei guztiei tratamendu banakatu eman zaie, baina berdin-berdinak diren kexa batzuk 63 espediente pertsonal eragin zituzten. Bada, adierazi diren 1.283 kexa horietatik gehienak indibidualak dira, baina, hori gorabehera, 188 taldeek aurkeztu dituzte, hala nola, auzotarren elkarteek, erreibindikazioak egiten dituzten plataformek, sindikatuek, talde ekologistek, etab.


Erreklamazioak zerikusia duten gaikako alorren arabera aztertzen baditugu, esan daiteke 1999an Ogasun arloa izan dela kezarik gehien eragin duena, 147ekin; gero Herrilanak eta Zerbitzuak alorra, 113ekin. Alor honetako Hezkuntza alorrak izan dute hazkuntzarik handiena.

Kexa zein administrazioaren aurka egin den aztertzen badugu, toki administrazioa (udalak) izan da erreklamazio gehien jasotzen duena (383), eta bigarren tokian Eusko Jaurlaritza dago (339). Foru aldundiak kopuru horietatik urrun daude, 164 kexarekin.


Kexa gehien jasotzen duten udalak ondoko hauek izan dira: Bilbo (82); Donostia (44); Gasteiz (31); Portugalete (14); Barakaldo (13); Santurtzi (13); Basauri (11); Getxo (10) eta Irun (10).

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, kexa gehien jasotzen duten sailak Hezkuntza eta Osasuna izan dira, hurrenez hurren 103 eta 73ekin. Azkenik, foru aldundien kasuan, Bizkaikoak 99 kexa jasotzen ditu, Gipuzkoakoak 36 eta Arabakoak 29.

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUKETA ALORREN ARABERA




ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA



OFIZIOZKO JARDUKETAK

BANAKETA ALORREZ ALOR 1999



Herritarrek aurkeztu dituzten eta aztertu diren kexa horiek ezezik, erakunde honek, bere ekimenari jarraiki, gai jakin batzuei buruzko ikerketak hasi ditu euskal administrazioen ustezko jarduketaren irregularitatearen antzeman dituelako edota lankidetzan aritzeko edo


zerbitzu berriak emateko aukera sortu delako.

Ofiziozko jarduketak 61 izan dira, eta horien artean, kopuruagatik, Gizarte Ongizate alorreko jarduketak azpimarra daitezke, ia erdia horiei buruzkoak izan direlako. Administrazioak kontuan hartzen baditugu, oharretan gara udalak izan direla ofiziozko jarduketaren gehien eragin dituztenak, %50etik gora.


1 Gizarte Ongizatea	5 Hezkuntza	9 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
2 Herrizaingoa	6 Kultura eta Elebitasuna	10 Ingurugiroa
3 Osasuna	7 Hirigintza eta Etxebizitza	11 Herri Lanak eta Zerbitzuak
4 Justizia	8 Herri Defendatzaileak	12 Ogasuna

ERREKLAMATZAILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



Arartekoak alta eta ikuskapenagatiko tasa aurkaratu zuen

GAS NATURALA HORNITZEN DUTEN ENPRESEK BATEZ BESTE 15.000 PEZETA ITZULI DIZKIETE ERABILTZAILEEI

Bizkaian bakarrik 120.000 baino gehiago izan dira BilboGas eta Naturgas enpresen diru kopuru garrantzitsuak jaso dituzten etxeak. Erkidegoaren gainerako herrialdeetan ere erabiltzaileek 1999an jaso dituzte gasa hornitzen duten enpresen itzulketak. Munta horiek Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak gasaren hornikuntzaren zerbitzua ematen hasteko lanetarako bidezkotzat jo zuen munta gaudituz alta eta ikuskapen zerbitzurako kobratu diren gaindikengatik dira.

Arartekoa kontzeptu horiengatik kobratu ziren munta guztiak itzultzearen alde azaldu zen, uste duelako ez zutela legezko euskarri nahikorik. Industria Sailak hartu duen erabakia, nahiz eta aholkua erabat ez bete, oso garrantzitsua da, eta asebeteta utzi gaitu. Erabiltzaileei itzuliko zaien munta, guztira, 1.400 milioi pezetakoa da, eta ez bakarrik erreklamazioa egin dutenei, eta hori justizia egintza da eta erabiltzaileen eskubideak aintzatesten ditu.



Arartekoaren artekaritza 5 gizaldi baino gehiagotan arazoak egon ondoren

“EL LIMITADO”KO LURRALDE GATAZKA, ARAMAIO (ARABA) ETA OTXANDIOREN (BIZKAIA) ARTEAN

El Limitado deritzon tokiak 565 hektarea ditu eta Otxandio hiribildua eta Olaeta landagunearen artean dago (Aramaio), eta horren jurisdikzioak, XV. gizalditik egunera arte, Aramaio eta Otxandio udalerrien arteko lehia sortu du. 1457an Elvira de Leira andreak, bere semea zen Aramaioko jaunaren izenean, enklabe horren erabileraren lagapena eman zien, baina ez jabetza, Otxandioko herritarrei. Orduetik egunera makina bat izan dira bi udalen eta Araba eta Bizkaiko aldundien arteko gatazkak El Limitado horren inguruan.

Araza konplikatu zela kontuan hartuta, Arartekoak bere burua aurkeztu zuen artekari lana egiteko eta adostasunean oinarrituta irtenbidea aurkitzeko. Lau erakunde ukituek eskaintza eta hurbilketa bideratzeko baldintzak onartu zituzten. Urte bat baino gehiagotan bilerak egin ondoren alderdiei adostasunezko proposamen zehatza aurkeztu zitzaion. hau da, El Limitadoko lurraldea bi erditan banatzea Aramaio eta Otxandio udalen artean eta, ondorioz, Araba eta Bizkaiko Aldundien artean. Banaketaren taxuketa naturaren mugekin bat egin da eta alde bakoitzak esleitura dituen erabilerak zaindu ditu. Une hauetan udal horiek proposamena aztertzen ari dira.



“El Limitado”



Herri lanak Bilbon

(El Correoren argazkia)

Udal askok ez dituzte betetzen

ADMINISTRAZIOEK ERE BADUTE KONTRATATZEN DITUZTEN ENPRESEK SORTARAZITAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA

Administrazioek kalteordainak ordaindu behar dizkie herritarrei herri zerbitzuen jardueraren ondorioz haiei sortarazten dizkien kalteengatik. Araza herri zerbitzua, zeharka, enpresa pribatu batek egiten duenean sortzen da (obrak, garbiketak, zaborrak,...). Horrelako kasuetan administrazio batzuetan ohikoa izaten da, batez ere udalen kasuan, erreklamazioa aurkeztu ondoren administrazio horrek uste izatea kalte hori ezin zaiola berari egotzi eta herritarrak erreklamazioa jarri behar diola enpresa horri; halaber, gehienetan enpresa horrek ez dio herritarrari jaramonik egiten.

Arartekoak uste du kalteordaina jasotzeko eskubidea berdin bete behar dela, herri zerbitzua eman duena gorabehera, hau da, zerbitzua zuzenean zein zeharka eman den kontuan hartu gabe. Administrazioak, zerbitzuaren titularrak

denez, berariaz ebatzi behar du kaltea zerbitzuak sortu duen ala ez eta nori dagokion kaltea ordaintzea. Oro har, erreklamazioa ezin du inoiz ebatzteke utzi kaltea enpresaren jarduketagatik izan dela esanez, eta ezin dio herritarrari esan berak erreklamatu behar duela enpresa kontratatuan. Aldi berean, bidezko mekanismoen bidez erantzukizunagatiko kalteordainak ordainduko direla bermatu behar du, asegoratu barne eta, hala denean, sorospidez erantzun.

Arartekoak antzeman du udal batzuetan (eskuhartzerik ez delako egon erreklamazioak aurkeztu dira Bilbo, Gasteiz, Getxo edo Galdakaon) ez dela bide zuzenetik jo. Gomendioak egin ziren ondoren, Irunek, Bilbok, eta Gasteizek onartu dituzte.

Zikinkeriak, usain txarrak, intsektuak, karraskariak eta lohi toxikoak

ERANDIOKO ASUAKO BIZTANLEEK EZIN DUTE GEHIAGO JASAN IBAIAREN EGOERA TXARRA

Auzo horretan bizi diren pertsonak eskatuta, Asua ibaiak itxurarik txarrena duen ingurua bisitatu zen eta pertsona horien kezak arazoizkoak zirela frogatu zen.

Ibaiak, Asua auzoa dagoen tokia baino pixka bat gorago, Bizkaiko Txorierri haran osoko hondakin ur guztiak biltzen ditu; Bilbao-Bizkaia Uren Partzuegoak toki horretan biltzen ditu urok, eta bertan isurtzen dira araztu gabe, gaiari buruzko araudi osoa hautsiz. Ur beltzen kiratsa jasan ezina da bertako jendearentzat eta, halaber, ibaiaren ertzetan dauden arratoi pilak pairatu behar dituzte. Hori gutxi balitz, ibaiaren hondoko lohietan iraganean inolako



Arartekoa Asuan

(El Correoren argazkia)

kontrolrik gabe egin ziren industri isurketen ondoriozko metal toxikoak daude.

Erakundeek arazo hauei aurre egiteko eskaini dituzten epeak gehiegizkoak dira herritarren aburuz eta, keza jaso ondoren, kudeaketak egin dira gai honetan zerikusia duten erakunde guztietan. Arartekoak egintza zuzenak egiteko konpromisoak jaso ditu.



(El Correoren argazkia)

ZABOR BILKETA: ZERBITZURIK EZ BADAGO, EZIN DA KOBRATU

Zierbenako Udalak zaborra biltzeagatik tasa kobratu nahi zion baserri baten jabeari, nahiz eta bilketa egiteko hurbilen zegoen gunea 3 km-ra egon. Tasa hori arautu duen ordenantza irakurri ondoren esan daiteke udalak ez duela arazoirik, eta, gainera, epaitegi askotan adierazi da kobratza hori bidegabekoa dela zerbitzua ez bada era eraginkorrean ematen. Zehatzago, Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiak

adierazi du ezin dela zaborrengatikotasarrik kobratu baldin eta edukinontzia erreklamazioa egin duen pertsonaren egoitzatik 300 metro baino gehiagora badago.

Zierbenako Udalari horren guztiaren berri eman zitzaion; erakunde horrek aholkua onetsi eta erreklamatzeko zuzenaren indarririk gabe utzi zuen.

GETXOKO HONDARTZA BAT LEHENGORATZEKO BAKIOKO KOSTALDEAN HONDARRA ATERATZERAKOAN GERTATU DIREN GORABEHERA BATZUK

Bakio aldeko kostaldean egin zen karrakaketa eta hondar-ateraketaren sustatzailea Bizkaiko Aldundia izan zen eta helburua Getxoko Arriunagako hondartza lehengoratzeko zen. Bakiotar askok keza aurkeztu zuten eta bertan adierazi zuten oso arduratuta zeudela, uste zutelako eragiketa horrek eragin handiak sor ditzakeela kostaldean, hondartzaren ezaugarriak, barra eta olatuak, itsasoko espezieak eta abar aldaraziz. Berariaz protestatu zuten hondarra baimendutako tokitik kanpo ari zirelako ateratzen.

Ikerketa karrakaketa lanak egiten ari ziren bitartean hasi zen eta horri esker frogatu zen ia hilabete osoan Euskal Herriko Kosten Mugaketa erakundeak baimendutako perimetrotik kanpo era irregularrean atera zutela hondarra. Halaber, aztertu zen ea ateraketa horrek Gaztelugatxekeko San Joan itsasoko biotopo babestuan ondorioz eragingo zuen. Zorionez, azterlan horrek ezetz frogatu zuen.

Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari era irregularrean atera zen hondar hori berriz jartzeko aholkatu zion, hau da, okerreko eragiketarako egin ziren toki zehatz horietan. Halaber, eskabidea egin zion Aldundiari hondar-ateraketa horren ondorioz Bakioko hondartzan aldaketarik gertatu ote den ikusteko azterlanak egin ditzan urte bateko epean. Aholkua onartu egin zen.



Bakioko hondartza

(El Correoren argazkia)

Udalak ez zuen ezer jakin nahi

INDUSTRI JARDUERA KLANDESTINOA ETA GOGAIKARRIA ELGOIBARREN

Auzo elkarte batzuek Elgoibarko Udalaren axolarik eza eta utzikeria salatu zuten, beren etxebizitzetan jasaten zituzten zarata eta bibrazioengatik erreklamazioa egitean, hark ez zielako jaramonik egiten. Zaratak eta bibrazioak beren etxe ondoko eraikin bateko bigarren solairuan zegoen industri jarduera batek sortzen zituen.

Udalaren axolarik ezak aurrera jarraitu zuen Arartekoak informazioa eskatu zionean, eta azkenean erakunde honen ordezkari batek udalaren bulegoetara joan behar izan zuen informazio hori lortzeko. Orduan egiaztatu zen udalaren beharrezko lizentziarik ez zuen industri jarduera baten funtzionamendua ari zirela baimentzen, eta auzoek zarata eta bibrazioengatik aurkeztutako erreklamazioak bidezkoak zirela.

Udalari jarduera hori ixteko gomendatu zitzaion, harik eta legeztatu arte, eta horixe egin zuen.



Elgoibar

(Diario Vascoren argazkia)

Antzutzea, emakume seropositiboek kasuan haurdunaldiaren borondatezko etetea egiteko baldintza

BERRIZ GERTATU BEHAR EZ DUEN PRAKTIKA BEREIZTAILEA



Galdakaoko ospitalea

(El Correoren argazkia)

Galdakaoko ospitalean kasu batean baino gehiagotan emakume seropositiboek, haurdunaldiaren borondatezko etetea egiteko, baldintza moduan antzutzea ezartzen zitzaizela salatu zen. Horixe ulertu zuten emakume horiek. Eskakizun hori seropositiboak ez diren emakumeekiko bereizkeria da.

Kexaren aurrekariak aztertu ondoren, Osakidetza zuzendaritzari adierazi zitzaion mediku batek uste izan dezakeela pazienteak, antzutzeari uko eginez, haurdunaldiaren

borondatezko etetea antisorgailu bezala erabiltzea esan nahi duela, baina horrek ezin du nahitaz antzutzea eragin. Baldin eta medikuak uste badu egokia dela emakume seropositibo bat antzutzea, horrek ondo ulertzeko eran azaldu behar dio, eta ez zeharka, emakumeak askatasunez erabaki dezan, inolako presiorik gabe. Antzutzeari gaitziritzea ezin da haurdunaldiaren borondatezko etetea egitea ukatzeko arrazoi izan. Aholkua onartu egin zen.

HEGOALDEKO ZUHAITZ-IGELAREN BABESEAN

Elkarte naturalista batek Gurelesako hezegunea, Donostiako Igara auzoan dagoena, biotopo babestu izendatzea eskatu zuen, bertan bizi baita Euskadiko Autonomia Erkidegoan desagertzeko arriskuan dauden espezieen katalogoan azaltzen den anfibio bakarra. Espezie hori hyla meridionalis-a da, hau da, hegoaldeko zuhaitz-igela.

Arartekoak informazioa eskatu zien alor horretan eskumenak dituzten administrazioei, eta harremanetan jarri ziren erreklamazioa egin zuen elkarte eta beste erakunde batzuk. Bilerek izan zuten emaitzarik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agindu baten bidez hegoaldeko zuhaitz-igelaren (hyla meridionalis) kudeaketa plana onetsi zen eta hori babesteko arau osagarri batzuk eman ziren. Kudeaketa plan horren helburua igelaren kopurua egonkorra izatea da, eta espezie horrek berriz Mendizorrotz mendikatearen aldeko basoa atzematea, anfibio horrek iraun dezan lortzeko. Halaber, hegoaldeko zuhaitz-igela zingira berrietan sartzeko egitaraua egingo da.



Hegoaldeko zuhaitz-igela

(Diario Vascoren argazkia)

Udalek ikuskapenak egin behar dituzte

LOKALEK ERAGITEN DITUZTEN ZARATAK ETA ERAGOZPENAK

Behin eta berriz egiten dira kekek ostalaritzako establezimenduek eragiten dituzten eragozpenengatik, besteak beste tabernek, pubek, jatetxeek, txokoez edo elkarte gastronomikoez eta abarrek. Halaber, asko izan dira supermerkatuek egiten dituzten zarategatik kekek, batez ere gaueko ordutegian dihardutenean, bai kamera frigorifikoetako konprentsoaren jardunagatik eta bai hotsagabetez dauden esparruetan egiten dituzten zama-lanengatik.

Jarduera horiek burutzeko beharrezkoa da udalaren lizentzia edukitzea, administrazioaren kontrol iraunkorriari lotuta daude, eta horien erantzukizuna udalena da. Udalei nahitaz gogorarazi behar zaie ikuskapenak egiteko ahalmen hori betearaztea funtsezkoa dela, batez ere instalazio horien jardueran gertatzen diren irregulartasunen ondorioz kaltetzen diren herritarrentzat. Horrela, udalaren manuzko lizentzian ezarri zaizkien neurri zuzentzaileak betetzen ote dituzten egiaztatuko da eta, hala ez bada, horiek egokitzeko aginduko zaie.

Osakidetzak ukatu egin zion aldaketa urtebete igaro ez zelako

PROTESIA TXIKI GERATU ZITZAION HAZTEN ARI ZELAKO

10 urteko neskato batek gerri-eskoliosiatatik erabili behar zuen kortse ortopedikoa aldatu behar zuen, hazten ari zelako eta txiki zuelako. Hori gorabehera, Osakidetzak ukatu egin zion protesi berria, aurrekoa ordaindu ziotenetik urtebete igaro ez zelako, eta “zerbitzugintza ortoprosesikoen katalogoan” berrikuntzari dagokionez hori delako ezarrita dagoen gutxieneko epea.

Arartekoak uste du hazkuntza prozesu normala dela haurtzaroan eta, beraz, arestian adierazi den zerbitzugintzen katalogo horrek berezko hazkuntzaren ondorio diren egoerak aurreikusi behar dituela, hala kortseari nola beste produktu batzuei dagokionez, eta berrikuntza beharrezkoa den uanean egiteko bidea eman. Osasun Sailak bat egiten du irizpide horrekin eta iragarri du kontuan hartuko dela prestatzen ari den katalogo berrian.



(Diario Vascoaren argazkia)

AITAK UMEARI OSPITALEAN BIBEROIA EMATEKO ESKUBIDEA DU

Ospitaleetan, erditzeko aldean barruan, esparru itxi bat egoten da, edoskitzeko tokia, eta horietan amek bularra edo biberioa ematen diete haurrei. Aita batek kexa azaldu zuen Bilboko Basurtuko Ospitalean eragotzi egiten ziotelako, salbuespeneko kasu batzuetan izan ezik, toki horretan sartzea bere umeari biberioa ematera. Horretarako ematen zen arrazoa ama batzuen lotsa zen, ez zutelako bularrik eman nahi gizonezkoren bat aurrean bazegoen.

Horrek esan nahi zuen aita eta amari tratu desberdina ematen zitzaizela, eta, beraz, informazioa eskatu zen eta Osakidetzari gaiari buruzko azalpenak eskatu zitzaizkion. Erantzunean argitu zen aparteko kasua zela eta ospitaleetan edoskitzeko gela horren ondoan beste lokal bat dagoela eta zilegi dela intimitatea nahi duen amari hori bermatzea. Halaber, adierazi zen Basurtuko Ospitaleak kontuan hartuko duela egin den erreklamazioa proiektatu duten jaio berrien aldearen birmoldaketa obretan.



EAE-N DAUDEN ESPETXEETAN EZ DAGO UMEAK DITUZTEN AMA PRESOENTZAKO UNITATERIK


Espetxe horietan preso dauden emakumeek, baldin eta seme-alabekin bizi nahi badute, Euskaditik kanpo dauden beste espetxe batzuetara joan behar dute. Hemen ez dago espetxei buruzko arautegian aurreikusita dauden “amen unitaterik”, eta horrek tratu desberdina dagoela adierazten du, eta eragin negatiboa duela familia erlazioak mantentzeari dagokionez, batez ere emakume horrek gure erkidegoan bizi diren beste seme-alaba txiki batzuk dituenean. Azken hiru urte hauetan

zortzi izan dira espetxeetan jaio diren umeak eta bi izan dira beste zentru batzuetara joan behar izan duten emakume presoak.

Arartekoak arazoa azaldu zion Espetxeetako Erakundeari eta horren erantzunean adierazi du konpromisoa hartu duela Euskadin eraikitzea aurreikusi den espetxe berrian amen unitatea jartzeko, nahiz eta toki eta eperik ez zehaztu.



Martuteneko kartzela



Langraitzeko kartzela

(El Correoren argazkia)

(Diario Vascoaren argazkia)

Oraindik asko dago egiteko

EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO ZERGA POLITIKARI BURUZKO GOMENDIO OROKORRA

Zerga guztietan ezgaitasunen bat duten pertsonen ematen zaien tratamendu bereziak argi adierazten du gizartearen sentzibilizazioa gero eta handiagoa dela erkidego horrekiko. Baina, hori gorabehera, baieztatu daiteke euskal zergeri buruzko arauetan ezgaitasunen bat duten pertsonen ematen zaien tratamenduan Estatuko gainerako tokietan aplikatzen diren xedapenetan baino abantaila gutxiago daudela. Aldeak, batez ere, PFEZri buruzko araudian daude.

Arartekoak, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat aukeren berdintasuna lortzeko bideak oraindik luze joko duela ikusita, euskal erakunde batzuetara jo du araudi batzuk aldarazteko aholkatuz. Aldarazpen proposamen



(Diario Vascoren argazkia)

horiek zerga batzuk ukitzen dituzte, esaterako ondoko hauek: Sozietateen gaineko Zerga; BEZ; Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eta abar, eta batez ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Adibidez, proposatu da berriz ere zergadunaren ezgaitasunean oinarritzen den kausagatiko gaixotasun guztien gastuak kentzea.

EHJANren epaia, Arartekoaren irizpideekin bat datorrena

EZGAITUEK EZ DUTE ORDAINDU BEHAR IBILGAILUEN ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA, NAHIZ ETA IBILGAILU HORIEK SERIEKOAK IZAN

Udal batzuek ez zieten aplikatzen ezgaituei Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren (lehen Zirkulazioaren gaineko Zerga zeritzanaren) salbuespena, baldin eta gidatzeko behar den egokitzapena, aldagailu-kutxa automatikoa, seriekoa bazen.

Arartekoak, hainbat eskuhartzetan, jokaera hori aldatzeko gomendatu zien, izan ere, zerga-salbuespena egiteko eskubidea ematen duen egokitzapenak berdin-berdin balio baitzuen tailer mekanikoan nahiz jatorrizko fabrikaren egin. Beraz, bi kasuetan zergarik ez kobratzea eskatzen zuten.

Orain, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak eman duen epai batek bat egin du irizpide horiekin eta behin betiko argitu du arazoa ibilgailuak gidatzen dituzten ezgaituen onurarako.

POLIZIAREN JARDUKETAK ATZERRITARREKIN SAN FRANTZISKO AUZOAN (BILBO)

1999ko maiatzaren 20an Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak "San Frantzisko auzoan bizi den gatazka-egoerari buruzko" legez besteko proposamena onetsi zuen; proposamen horretan, parlamentuak Arartekoaren gomendioak jaso zituen eta erakundeen (Jaurilaritza, Aldundia, Udala) eskuhartze handiagoa eskatu zuen aldearen birgaikuntza integralari ekiteko, eta Arartekoari eskabidea egin zion gomendio horiek betearazteari buruzko jarraipena egiteko.

Azken urte honetan egin den ikuskapenaren ondorioz, poliziaren datuak bilatu eta aztertu dira (kalean egiten diren identifikazioak, atxiloketak, droga harrapaketak, egintzetan agenteak aldatzea, prestakuntza jarduerak eta kontrola,...); halaber, erkatzeko bilerak egin dira alde horretako elkarte eta taldeekin, keak tramitatu dira, epaitegietako 5.173 epai berrikusi dira, prentsan azaltzen diren berriak aztertu,...

Arartekoak egin duen kontrolerako txostena otsailaren 29an eman zaio Legebiltzarrari, eta bertan datu hauek islatu dira:

- alde horretan egin diren identifikazioak, azken bi urte hauetan: 13.264 (horietatik %34,2 jatorriz atzerritarren diren pertsonenak).
- atxiloketak: 2.830 (horietatik %34,2 talde horretako pertsonenak).
- Ertzaintzak egin dituen droga harrapaketak: 751 (horietatik %17,5 jatorriz atzerritarren diren pertsonenak).

- komisarian egin duten denbora, batez beste: 12 ordu atzerritarren ez diren pertsonenak, eta 21 ordu jatorriz atzerritarren direnek.

Zenbateraino bete dira Arartekoaren gomendioak?

Bada, gomendio edo proposamenaren arabera aldatzen da. Kasu batzuetan, erakunde honen aburuz, benetako urratsak eraginkorrak egin dira; adibidez, aldeak birgaikuntza integrala behar duela onartzea eta horretan erakundeek bitartekoak jarri behar dituztela, edo, kasu jakin batzuetan, esaterako pertsonen egiten zaizkien araketetan edo kalean egiten den salmentaren kontrolean poliziaren praktikak erregulatzeko eman diren aginduak,...

Beste proposamen batzuetan, ordea, gutxi aurreratu da, edo egin diren urratsak ez dira nahikoak, ezta hurrik eman ere. Adibidez, bilguneak sustatzeko premia, poliziaren eskuhartzeak ebaluatzeko adierazkarien erabilera, horien jarduketan benetako kontrola sendotzea, edo gizabanakoen eskubideekiko begirune gutxi erakusten duten jokaera jakin batzuk kentzerakoan.

Pertsona guztien eskubideak babesteko badira, bereziki talde ahulenenak, hemendik aurrera ere San Frantzisko auzokoa bezalako egoerei lehenetsuneko arreta eman beharko zaie.



Bilboko San Frantzisko kalea

(El Correoren argazkia)

Txirrindulariek “oinez” joan behar dute, eta irristalariak “oinez doan pertsona baten abiaduran”

TRAFIKOARI BURUZKO LEGEAK DIO: OINEZKOENTZAKO ALDEAK OINEZKOENTZAT DIRA

Gasteizko pertsona batzuk arduratuta zeuden oinezkoentzako aldeetan bizikletaz zirkulatzeko zelako eta beste batzuk patinez, monopatinaz eta antzeko gailuez ibiltzen zirelako, abiadura ezegokietan. Arartekoak ofiziotzko jarduketari ekin zion.

Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legeak adierazten eta agintzen du bizikletek ezin dutela oinezkoentzako aldeetatik zirkulatu, horien gidariak “oinez” dihoazenean izan ezik. Halaber, patinak, monopatinak eta antzeko gailuak erabiltzen dituztenek espaloietan eta oinezkoentzako aldeetan “pertsona baten



Txirrindularia Gasteizko oinezkoen alde batean

abiaduran” baino ezin dute egin. Legezko arauak dira oinezkoentzako aldeetan pertsona eta adierazi diren ibilgailuen eta gainerako gailuen arteko bateraezintasuna ezartzen dutenak eta, halaber, indarrak gabe uzten dituzte horiek hausten dituzten xedapenak.

Beraz, Gasteizko Udalarik aholkua egin zaio Trafikoari buruzko Legeak debekatzen dituen erabilerak bideratzen dituen ordenantzako manuak alda ditzan, jendearen artean baimenduta dauden erabileren berri eman eta okerreko erabilerak ekiditeko jardun dezan.

Udala eta Aldundia “batak besteari” errua bota nahian

BILBOKO KALEAK BERTAN BEHERA UTZITA ETA EGOERA NEGARGARRIAN



Bilbo: udaletxea eta La Salbe zubia

(El Correoren argazkia)

Bilboko biztanle batzuk kaleen egoera negargarria eta narriatua salatu zuten, eta esaten zuten administrazioak ez duela ezer egiten hori konpontzeko. Udalerak jotzen dutenenean erreklamatzeko, horrek horien mantentimendua eta artapena Bizkaiko Aldundiaren ardura dela esaten diete. Eta aldundi horrek, berriz, udala dela kale horien titularrak.

Bada, ardura falta horrek, ezer konpontzea ezetik, herritarren etsipena baino ez du lortzen;

horregatik Arartekoak administrazioei Bilboko hiri lurzoria zeharkatzen duten foru errepedeen tartek mugatzeko espedienteak hasteko proposamena egin zion. Erantzuna aldekoa izan zen eta toki jakin batzuetan hiriko tarte batzuk mugatzeko proposamena zehaztu zen, besteak beste, Juan de Garai eta Sabino Arana kaleen eta A-8 autobidearen arteko bilgunea, Begoñako Ama zeharbidea, La Salbe zubia, etab. Prozesua abian dago.

ESPEDIENTEAK IKUSI AHAL IZATEA HERRI ENPLEGUA HAUTATZEKO PROZESUETAN

Gasteizko Udalak egin zuen deialdi batean esku hartu zuen hautagai batek kexa azaldu zuen, ukatu egin baitzieten beste hautagai batek eskatzen zen beharkizunetako bat egiaztatzeko aurkeztu zuen ziurtagiriaren kopia, eta baita gainditu zuten hautagaien froga teoriko eta praktikoen kopia ere.

Arartekoak Udalarik adierazi zion herritarrek administrazioeko espedienteetako agiriak ikusteko eskubidea dutela, eta eskubide hori nahitaezko beharkizuna dela eskubide zabalago baterako, esaterako esku hartzekoa, eta informazioa jasotzeko eskubideari lotuta dagoela. Halaber, adierazi zitzaion Zuzenbide Estatu baten administrazioaren jarduketan ardatz nagusi izan behar duen gardentasun oinarriaren adierazpena dela.

Administrazioak, halaber, legezko eta horretan eskuhartzeagatik zuzeneko interesa egiaztatzen dutenei gainerako azterketa ikusi ahal izateko bideak ezarri behar dizkie.

EUSKARA ERABILTZEKO ESKUBIDEA ETA ESKURA DAUDEN BITARTEKOAK

Pertsona bat Ertzainetxe batera joan zen salaketa bat egitera, eta euskaraz hitz egin zuen; esan zioten hiri berean zegoen beste komisaria batera joan behar zuela. Beste pertsona bat larrialdi zerbitzuetara joan zen 81 urte dituen bere ama laguntzera, eta bigarren horrek gaztelaniaz hitz egiteko arazoak ditu; egoera horretan euskara ezin erabiltzeagatik Osakidetzaaren aurkako jarrera azaldu zuen.

Onartu behar da kexa horiek testuinguru baten barruan sartu behar direla, hau da, une horretan eskura dauden bitartekoei lotuta daudela, baina ez dago inolako dudarik kexa horiek badutela funtsik, eta horrela adierazi zitzaizen eragindako administrazioei. Bi kasu horiei dagokien esparruetan, Ertzaintza eta Osakidetza, atzeratu egin da bidezko euskalduntze plana. Plan horiek onartu eta aplikatzea baliaugarria izango da ez bakarrik euskarak



(El Correoren argazkia)

hizkuntza ofizial moduan izan behar duen aintzatespena lortzeko, baizik eta baita ere herri enplegu batzuetara aurkezten diren hautagaiei eskatzen zaiena irizpide objektiboetan oinarritzeko.

Bitarteko irakasle ez-egonkorrek ez zituzten abantaila berberak

BERDINTASUNA AMATASUN BAIMENEAN

Hezkuntza Saileko irakaskuntzako langile funtzionarioen lan-hitzarmenak hobetu egin zuen amatasun baimena eta 18 astera luzatu zuen. Baina hobekuntza hori ez zitzaizen aplikatzen erditzen zuten bitarteko irakasle ez-egonkorrei, baldin eta horien baimena kargua uztearekin eta abuztuaren 31n gertatzen den izendapenarekin batera gertatzen bazen.

Irakasle baten erreklamazioari jaramon eginez, Sailari talde horretan ere haurdunaldi eta erditzeagatik lizentzia 18 astekoa izateko gomendatu zitzaion, eta onartu egin zen gomendioa.

Herrizaingo Sailak ikerketa hasi du Arartekoak eskatuta

BI ERTZAINEK NEURRIAK GAINDITU ZITUZTEN HIRU EMAKUME ARAKATZERAKOAN

Hiru emakumek ustezko suizidio baten ondorioz sortu zen jende pilaketa bat utzi zutenean bi ertzainek gelditzeko esan zieten, pertsona susmagarritzat jo baitzituzten. Jabetzaren aurkako delituren batekin zerikusirik zuten jakin nahi zuten eta identifikatzeko eskatu ondoren, ezkaratz baten barruan gorputzak arakatu zizkieten.

Agente batek emakumeei jertseak erantzeko eta frakak irekitzeko esan zien, eta gero soineko arropen gainetik ukitu zituen; hori egin ondoren joateko esan zieten. Lekuko batek Arartekora jo zuen.

Bildu diren datu horien arabera ez zen emakumeak geldiarazteko arrazoi nahikorik egon. Susmoak gehiegizkoak izan ziren, inork ez zuelako bertan adierazi ezer lapurtu ziotenik. Ertzain horien jokaerek hiritarren eskubideak eraso zituzten. Arakaketa ere neurritzeko kanpoko izan zen, eta ez zen zentzuzkoa izan kasu horretarako.

Herrizaingo Sailari ondorio horien berri eman zitzaion eta horrek ikerketa egingo zuela agindu zuen.



Leioako kanpua

(El Correoren argazkia)

EHU-KO ETA EUSKO JAURLARITZAKO LANGILEEN PRIBAZITATEA "LAN ORDU BAT BAI EUSKARARI AKORDIOAREN ALDE" KANPAINAN

Herri ikastetxeetako langileen talde batzuk, alde batetik, eta Euskal Herriko Unibertsitateko langileek bestetik, bi kexa azaldu zituzten eta horietan kritikatu egin zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak Kontseilua erakundeak sustatu zuen bilketa-kanpaina laguntzeko artikulatu zuten prozedura, hau da, nominan kenketa egitea. Uste zuten funtsezkoa den intimitatearen eskubidea urratzen zuela.

Oinarritzeko eskubide horien berme bezala, Arartekoak gomendatu zuen horrelako

jarduketak egiten direnean, ahaleginak egin behar direla lankidetzeta-sistema horiek diseinatzean langileek beren pribazitateari lotutako gaiez duten borondatea adierazi beharrik ez izateko beren nagusi diren aparatuko burokratiko edo administratiboaren organo edo zerbitzuetan.

Bi administrazio horiek onartu egin dute gomendioa eta jakinarazi dute ez dela bide hori gehiagotan erabiliko.

JUSTIZIAREN GABEZIAK TRATU TXARRAK PAIRATZEN DITUZTEN EMAKUMEEI DAGOKIENEZ

Auzibidean dauden gaitan eskuhartzeko aukerarik ez izateak ez du esan nahi Arartekoak ez dituela arazo horien sakoneko gatazka pertsonalak eta sozialak ezagutzen. Sarritan herritarrak haserre azaltzen dira, eta baita harrituta ere, justizia administrazioa ez dutelako gauza ikusten gizarteak dituen arazoak ebazteko. Horrela, auzitegien ebazpen eta jarduketak motelegi gertatzen direlako protestatzen jarraitzen dute.

Berariaz garrantzitsua eta arduratzekoa den beste gai bat hauxe da: justiziak ez duela bitarteko egokirik tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen integritatea babesteko, hauen bizikide diren edo izan diren gizonezkoek tratu txarrak ematean. 1999an zigor legeetan aldaketa batzuk gertatu dira bitarteko horiek eragingarriagoak izan daitezen, baina emakume batzuk Arartekora jo dute beraien ezkontide ohiek egiten dizkieten mehatxu eta eraso beldur direla adierazteko, eta ezin direla defendatu esateko. Emakume horiek jakin badakite poliziak ez duela bitartekorik zaintza iraunkorra egiteko, baina kexatu egiten dira gertaera zehatzak salatzen dituztenean, horien



Epaiketa

(Diario Vascoren argazkia)

ondorioa, ia beti, faltengatiko epaiketak izaten direlako eta horietan ezartzen diren zigorrek ez dutelako jokaera aldatzerik ekartzen, eta batzuetan erasotzailearen jokaera bortitza areagotu baino ez dutelako egiten.

Erreklamazio mota hauetan beti azaltzen den baldintza salaketa egin duten pertsonen laguntza juridikorik ez edukitzea da. Abokatu baten aholkularitza teknikorik ez edukitzeak sarritan karguaren froga behar bezala ez

prestatzea eragiten du eta, ondorioz, pertsona salatuaren absoluzioa. Magistratu batzuek arazoa sentsibilitate handiagoz aztertzen dute eta doako laguntza juridikoa ezartzen dute. Dena dela, komeniko litzateke salaketa egin duen pertsonak bitarteko ekonomikorik ez duenean laguntza hori beti bermatzea, eta uste dugu eskumenak dituzten erakundeek, abokatu elkargoek eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak helburu hori lortzeko bidezko neurriak hartu behar dituztela.

Zein udalek ordaindu behar du, baldin eta adinekoa beste herri batera joan bada bizitzera?

EGOITZAK: UDAL EKARPENA

Urte askotan Gipuzkoako herri batean bizi zen pertsona bat beste herri batera joan zen bizitzera, bere alabarekin eta familiarekin, baina urte bat egin ondoren egoitza batean sartu zen, bere egoera fisikoak txarrera egin zuelako. Udalek errolatuta bost urte egitea eskatzen dute ematen dituzten laguntza ekonomikoak jasotzeko eta, ondorioz, bi udalek, jatorrizkoak eta destinokoak, ez zuten laguntza horren erantzukizuna hartu nahi. Eskatzailea ez zen hasierako udalerriko biztanle eta bigarrenean ez zuen bost urteko epea betetzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako kasuetan jarduteko arau batzuk ezarri zituen, EUDEL- Euskal Udalen Elkarteak onetsi zituenak, eta zenbait negoziazio egin ondoren, gai honekin zerikusia zuten udalek aplikatzea onartu zuten. Jatorrizkoak udalaren ekarpen osoa ordainduko du, harik eta eskatzaileak bost urte bete arte errolatuta destinoko udalerrian eta, une horretatik aurrera, bigarren udalak hartuko du bere gain finantzaketa.



(Diario Vascoren argazkia)

ISUNAK MONETAK ERABILIZ ORDAIN DAITEZKE

Irungo Udalak ez zuen onartu herritar batek trafikoko zigorra monetak erabiliz ordaintzea. Gai hau arautzen duen aginduak ezarri du herri kutxetan legez erabilzen diren monetak onartu behar direla, inolako mugarik gabe.

Arartekoak jakin badaki praktika honek eragozpenak sor ditzakeela, baina ez dago hedatuta, eta halaber, ezin du inoiz eragin legearen aurka egiterik.

Gomendioa onartu egin zen eta herritarrak isuna nahi zuen era horretan ordaindu zuen, txanpon ugari erabiliz.



(Diario Vascoren argazkia)

Eskakizun gehiegi

TAO ZONETAKO EGOILIARREN TXARTELA

Donostiako herritar batzuk keak azaldu zituzten eta horregatik ordenantza araupetzaila aztertu zen; atera den ondorioa argia da, hots, idatz-zati batzuetan legea hausten dela; beraz, ondokoa eskatu zitzaion Udalari:

- Ezabatu egin behar dira erreferentzia batzuk, hau da, egoiliar txartela edo parkimetro indibiduala eskuratzeko egoiliarrek zirkulazioaren gaineko zerga edo jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainduta eduki behar dutela eta ez dutela Udalean trafikoko arau-hausteengatik zigorrik ordaintzeke eduki behar dioena. Beharkizun hori ezin da justifikatu, Udalak bitarteko egokiak dituelako zor horiek kobratzeko.

- Egoitza egiaztatzeko eskatzen ziren beharkizunak ezabatzea, udal erroldan inskribatuta egotea udalerriko egoiliar izatearen eta bertan ohiko egoitza edukitzearen froga delako.

- Aztertu egin behar duela ibilgailuaren titularrak eta ohiko gidariaren bateragarritasunaren eskakizuna ezabatzea.



(Diario Vascoren argazkia)

IBILGAILUETARAKO MINUSBALIODUNEN TXARTELEK UDALERRI GUZTIETARAKO BALIO DUTE



Minusbaliodunentzako aparkalekua

(Diario Vascoren argazkia)

Donostiako Udalak isuna jarri zion minusbalia duen Errenteriako gidari bati minusbaliodunentzako plaza batean aparkatzeagatik, nahiz eta ezgaitasuna duen pertsona dela egiaztatzen duen Eusko Jaurlaritzaren txartela ondo ikusteko moduko tokian jarri zuen. Zigorra aparkatzea arautzen duen udalaren Ordenantzan oinarrituta jarri zitzaion, testu horretan esaten delako abantaila horiek erabiltzeko Donostiako minusbaliodunei ematen zaien bidezko txartela eduki behar dela.

Jarduketa hori Eusko Jaurlaritzako dekretuan ezarri denaren aurka dago, dekretuan adierazten delako udalek emandako txartelak udalerrri guztietan duela balioa eta udal bakoitzak ezarriko dituen onura zehatzak bideratzen dituela. Beraz, Donostiako Udalari isuna indarrak gabe uzteko eta ordenantza hori aldatzeko eskatu zitzaion, eta bien bitartean zio horregatik zigorrik ez jartzeko.

JUSTIZIA: BITARTEKOAK JARRI BEHAR DIRA ERKIDEGOAREN ONURARAKO LANEN BIDEZKO ZIGORRAK APLIKATZEKO

Zigor Kode berrian azaldu ziren berrikuntzetatik gehien espero eta eskatzen zena betiko espetxeke zigorraren zigor alternatiboaren aplikazioarena izan da. Alde batetik, asteburuetako atxiloketak dira, baina horien aplikaziorako hamaika arazo daude, ez baitago bitartekorik eta lokal egokirik, eta bestetik, erkidegoaren onurarako lanak. Auzitegiak zigor hori ezar dezake asteburuko atxiloketaren edo isuna ez ordaintzeagatik atxatasunik gabeko zigorraren ordez.

Ikerketa bat egin ondoren, Arartekoak adierazi du Euskadiko Autonomia Erkidegoan ez dela erkidegoaren onurarako lanen bidezko zigorra aplikatzen, aparteko kasuren batean izan ezik, eta, beraz, euskal herritarrek ez dutela


aukerarik espetxean ez sartzeko eta erkidegoaren zerbizurako zerbait egiteko.

Nahiz eta zigor hori aplikatzeko baldintzak taxutzearen funtsezko erantzukizuna espetxeetako administrazioarena izan, gainerako herri botereek ere lagundu egin behar dute espetxeke zigorraren alternatiba den neurri hori hedatzen eta sustatzen.

Horregatik, Euskal Herriko herri administrazioei gizartea sentsibilizatzen laguntzeko aholkatu zaie eta, ahal duten neurrian, adierazi den zigor hori betetzeko plazak eskaintzeko.

Erkidegoaren biztanleen erdia
urez hornitzen dute

URAREN KALITATEAREN BABESA ZADORRA SISTEMAKO URTEGIETAN



Ulibarri-Ganboako urtegia

Txosten berezia Txostenean Zadorra sistemako urtegien urek denboran zehar duten kalitatea aztertzen da gertatzen diren aldaketak antzemateko, denboragatik jazotakoak, berezkoak eta gizakiak eragindakoak eta, horrela, etorkizunari begira joerak ezagutzeko. Halaber, administrazioak urtegiatiko ura babesteko eskura dituen bitartekoak eta neurriak, egiten dituen jarduketak eta horien eragingarritasuna aztertu dira.

Urtegi horiek, Euskal Herriko biztanleen ia erdiari ura hornitzeaz gain, bitarteko hidriko ordezkatu ezina dira, eta izugarri ahulak dira dauden arriskuengatik: hiri eta industrietako isurketak; merkatugai arriskutsuen garraioa, aisialdi eta kirol jarduerak, eta baita nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzakoak ere. Horri guztiari beste ezaugarri bat batu behar zaio: eskumenak erakunde askoren artean sakabanatuta daudela.

Txostenaren ondorio nagusia zera da, administrazioak irizpideak batu eta jarduketak koordinatu behar dituela urtegien ingurua eta horien uren kalitatea babesteko, baldin eta gure ondoko belaunaldiak oinarritzako elementu horietaz gozatzeko jarraitzea nahi badugu. Lurraldearen Antolamendurako Arlokako Lurralde Plana egitea proposatu da.


Baina beste ondorio garrantzitsu batzuk ere azaldu dira, gomendio gisa, esaterako, babesteko balioko duen ertzetako landaretza lehengoratzeko premia; Zadorra arroko bitarteko akuatikoa nekazaritzan erabiltzen diren nitratoengatik kutsaduratik babestu beharra; eta hiri eta industrietako hondakin urak tratatzerakoan prozesu aurreratuagoak sartzea komeni dela.

ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA

Txosten berezia Oinarritzako Gizarte Zerbitzuak, udaletan garatzen direnak, gizartearen premiei aurre egiteko lehen bidea dira eta herritarrengandik hurbilen daude. Ezaugarri horiek Arartekoak talde ahulenen egoera aztertzeke egin dituen lan guztietan azaldu dira: pertsona zaharrak, atxilotuak, presoak, babesik ez duten adin txikikoak, gaixoak,...

Txosten honetan oinarritzako gizarte zerbitzuei buruzko erreferentziako irizpideak eman dira, egungo egoera deskribatu da eta zerbitzua hobetzeko jarduteko bideak eta aholkuak ematen ditu.

Eskubideak bermatzearen ikuspegitik berariaz azpimarratu behar dira txosteneko elementu batzuk: zerbitzu hauek oraindik ere funtzioak erabat sailkatu eta zehaztu gabe dituztela, eta herritarrek horiei buruzko informazio gutxi dutela; lurralde, alde edo udalerrien arabera alde nabarmenak daudela biztanleei eskaintzen zaien arretari dagokionez;



administrazioko lanaren gehiegizko zama eta, ondorioz, zerbitzuen arteko eta horien eta gizarte-agenteen arteko lankidetzak eskasa; ezkutuan dagoen arreta-eskea, erantzunik jasotzen ez duena.

ARGITALPENAK

- *Legebiltzarrarentzako Txostenean Arartekoak aurreko urtean egin dituen jarduerak guztiak biltzen dira.*

- *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegiatan gaiari buruzko txosten berezia.*

- *Oinarritzako Gizarte Zerbitzuen egoera Euskadiko Autonomia Erkidegoan gaiari buruzko txosten berezia.*

- *Erkidegoaren eskuhartzea Euskadin. Bereizkeriari buruzko gizarte ekintzara hurbiltzea. Erakundearen beka baten emaitza.*

- *Giza eskubideen indarraldia eta etorkizuna 50. urteurrenean eta Eskubideek ez dute balioa galtzen adinak aurrera egin ahala. Adinekoen Nazioarteko Urtea, Arartekoak antolatuta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikastaroetan hurrenez hurren 1998 eta 1999an egin ziren lansaioetako eskuhartzeen bildumak.*

Ararteko
Vigencia y futuro
de la Declaración Universal
de los Derechos Humanos
en su 50 aniversario




Ararteko
Los derechos
no caducan con la edad:
el año internacional
de las personas mayores



Jorge Montoya Irujo
Intervención comunitaria
en Euskadi.
Acercamiento a la acción social
sobre la exclusión



URAREN
KALITATEAREN BABESA
ZADORRA SISTEMAKO
URTEGIETAN



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
1998

Arartekoak Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan antolatu zuen jardunaldia


ESKUBIDEEK EZ DUTE BALIOA GALTZEN ADINAK AURRERA EGIN AHALA: ADINEKOEN NAZIOARTEKO URTEA

Jardunaldi honetan Juan Luis Beltrán eta Angel Carrasco irakasleen bi txostenetan zaharren eskubideen babesa aztertu zen, bi ikuspegi zainduz, ikuspegi zibila eta administratiboa. Txostenen izenburuak, "Herri botereek zaharrei jaramon egiteko eta horiek zaintzeko duten antolamendu juridikoa" eta "Adinekoen elikadura eta zaintza familiako zama bezala".

Halaber, adinekoen arloan oso egunerokoak diren gaiet buruzko beste jakinarazpen interesgarri batzuk aurkeztu ziren, esaterako tutoretza, zorraren aintzatespena edo zaharrek egoitzetan dituzten eskubideak.

Lansaoia hasteko Arartekoak hitz egin zuen eta adierazi zuen beharrezkoa dela gizarte mailan zaharrak diren herritarren errealitateari eta azkar gertatzen ari diren aldaketei buruzko eztabaidari ekitea.

Gizarteak eta herri botereek jarduteko irizpideak zehaztu behar dituzte, zertarako-eta adina pertsona zaharren eskubideak betearazteko muga bihur ez dadin.



Xabier Markiegiaren mintzaldia. Berarekin, Ricardo Etxepare, EHUko Uda Ikastaroetako zuzendaria



Eskubideek urteekin ez dute baliorik galtzen
Los derechos no caducan con la edad

Abenduak 10. Giza eskubideen eguna



1999 Año Internacional de las Personas Mayores

HELDUEN ETA HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO KARTELAK ETA EGUTEGIAK

Abenduaren 10ean ospatzen den Giza Eskubideen Munduko Egunean, Arartekoak urtero kartel bat argitaratu du. 1999an, Adineko Pertsonen Nazioarteko Urtea izateagatik, "Eskubideek urteekin ez dute baliorik galtzen" lema zuen kartela egin da.

Kartel horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan hedatu dira ondo ikusteko moduko tokietan jartzeko eta neska eta mutikoak giza eskubideen kulturaz hazten laguntzeko.

Helburu horrekin, halaber, baina horiekin zuzenago lotuta dauden arazoetan, Arartekoak DBHko 1. eta 2. zikloko mutiko eta neskenzat 2000ko poltsikoko egutegia argitaratu eta zabaldu zuen; egutegi horretan, labor bilduta eta hizkuntza ulerterrazean, 10. urteurrena bete duen Haurren Konbentzioan ematen diren eskubideak azaltzen dira.

Munduko ume orok honako eskubide hauek ditugu:

- 1** Almirantaren honetan adierazten eskubide guztiak aloratu behar direla, inolako salbuespen, bereizketa edo bazterkeriak gabe.
- 2** Babes berezia jaso behar dugu osotasun eta normaltasunez hazi eta garatu ahal izateko.
- 3** Osotasunaz hazi ahal izateko, ondo elkartu, etxebizitzan eduki eta osasun zehatzaz egotzea izan behar dugu.
- 4** Herrian arteko elkar ulertze, jasangarritasun eta adiskidetasun.
- 5** Ezintasun fisiko edo psikikoren bat izanez gero, indarrendu bereziaz jautsuko eskubidea dugu.
- 6** Maitasunak eta ulertuak izan behar dugu, eta esaki bezalako begira, bizirik eta egokiak eduku.
- 7** Heziketa dabilen eta nahiaren jaso behar dugu, eta joko nahiz jolasez erabiltzeko gaitasuna.
- 8** Erabazpen egonkortan babesia eta laguntza jasotzeko lehenetsitako izan behar dugu.
- 9** Abandono, gogorakeria eta zapalkuntzen kontrako babesia behar dugu.
- 10** giroan, bakean eta antolatutasunaz hazitzeko eskubidea dugu.

Arartekoak eskum duzue!

812 Posta Kutxa • 01080 Vitoria-Gasteiz • 945 13 51 18

2000

Urteak	Otsaila	Martxoan
1	2	3
4	5	6
7	8	9
10	11	12
13	14	15
16	17	18
19	20	21
22	23	24
25	26	27
28	29	30
31		

Maiatza	Ekaina
1	2
3	4
5	6
7	8
9	10
11	12
13	14
15	16
17	18
19	20
21	22
23	24
25	26
27	28
29	30
31	

Abuztu	Iraila
1	2
3	4
5	6
7	8
9	10
11	12
13	14
15	16
17	18
19	20
21	22
23	24
25	26
27	28
29	30
31	

Azaroa	Abendu
1	2
3	4
5	6
7	8
9	10
11	12
13	14
15	16
17	18
19	20
21	22
23	24
25	26
27	28
29	30
31	





Arartekoari buruzko Legearen XV. urteurreneko ospakizun ekitaldia

ERAKUNDE MAILAKO EGINTZA EUSKO LEGEBILTZARREAN ARARTEKOARI BURUZKO LEGEA ONETSI ZENETIK XV URTE IGARO DIRELA OSPATZEKO

Otsailaren 28an, anitz gonbidaturekin eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Juan José Ibarretxe buru zela, erakunde mailako ospakizuna egin zen; ekitaldi horretan, halaber, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Juan María Atutxa, Europako Herriaren Defendatzailea, Jacob Söderman, Espainiako lehen Herriaren Defendatzailea izan zena, Joaquín Ruiz-Jiménez eta Arartekoa, Xabier Markiegi egon ziren.

Ararteko erakundea sortu eta arautu duen Eusko Legebiltzarreko Legea 1985eko otsailaren 27an onetsi zen.

MUGARIK GABEKO MEDIKUEN ERREFUXIATUEN KANPAMENTURA BISITA

Apirilean Arartekoa errefuxiatu kanpamentu baten simulazioa ikustera joan zen. Kanpamentu hori Bilboko Arenalean jarri zuen Mugarik Gabeko Medikuak erakunde humanitarioak, alegia, 1999 urtean Bakearen Nobel Saria jaso zuen GKEk. Ikustaldi horretan, talde horretako bolondresak zehatz-mehatz azaldu zioten horrelako kanpamentu baten jardumbidea, errefuxiatu asko bat-batean heltzen direnean izaten diren lehentasunak, bizirik irautea bermatzeko laguntza sanitarioaren eta

elikagaien antolakuntza, pertsonen aurkako minek eragiten dituzten heriotza eta mutilazioak aurrearretaz zaintzeko ahaleginak, etab.

Kanpamentua Bilbon egon zen egunetan asko izan ziren bisitatu zuten eskolako umeak eta pertsonak.



Xabier Markiegi, Arartekoa, denda baitetik irteten



Errefuxiatu kanpamentu baten simulazioa Bilboko Arenalean

ARARTEKOA GASTEIZKO IKASTETXEETAKO NESKA-MUTILEKIN

Azken urte hauetan asko izan dira Arartekoaren bulego nagusiak bisitatu dituzten Gasteizko ikastegietako DBHko ikasleak.

Hiriko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatu duen hezkuntzako egitarauaren barruan, komunikabide batzuekin lankidetzan, ikasleek Gasteizko informatiboa egiten dute idatzizko prentsa, irrati eta telebistarako modalitateetan.

Behar dituzten informazioak biltzeko, besteak beste, Arartekoarengana jotzen dute eta bertan erakundearen jardunbideari eta gizarteari eskaintzen dizkion zerbitzuari buruz aurrez prestatu dituzten galderak egiten dituzte.



Diocesisan-Arriaga ikastetxeko ikasle talde bat Arartekoarekin

GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO KOORDINAZIO, HEDAKUNTZA ETA IKERKUNTZA JARDUERAK

Jardunaldiak eta kongresuak beste herriaren defendatzaile batzuekin

Arartekoak Aragoi in egin ziren Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XV. Jardunaldietan esku hartu zuen, Espainiako Herriaren Defendatzailearekin eta autonomia erkidegoetako defendatzaileekin. Erakundeak “Adineko pertsonen eskubideen babesa” izenburuko txostena aurkeztu zuen.

Tegucigalpan (Hondurasen) egin zen Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren Urteko IV. Kongresuan “Estatuaren zeregina adinekoen eskubideen babesean” izeneko lana aurkeztu zen.

Florentzian (Italian) egin zen erregioetako Herriaren Defendatzaileen Konferentzian “Erregio mailako hiritarren defentsa Europan eta Europako Herriaren defendatzailearekin duen lankidetzan” arazoa aztertu zen.

Ikerketak eta eskolako materialak egiteko bekak

1999an giza eskubideen arloei lotuta dauden eta aurreko urteetan iragarri diren bi beka oso interesgarri garatu dira, ondoko gai hauei buruzkoak:

* Erkidegoaren eskuhartzea Euskadin. Bereizkeriari buruzko gizarte ekintzei hurbiltzea.

* Etxeko biolentziaren epaitegiatiko tratamendua.

1999an deitu zen ikerkuntzako beka, hautespen prozesua burutu ondoren adjudikatu dena, atzeritarrek pairatzen dituzten arazoei buruzkoa izango da.

Erakundeak, halaber, eskolan erabiltzeko giza eskubideen hezkuntzarako materialak egiteko bekak iragartzen ditu. 1999an bekaren adjudikazioduna izan zen taldea ikasgeletan

esperimentatzen ari da horien erabilera neurtzeko. Beka honen azken deialdian 23 proiektu aurkeztu dira.

Hitzaldiak unibertsitateetan

Maspalomaseko (Kanaria Handiko) Unibertsitateko Udako Ikastaroak: Arartekoak “Eraldaketa psikiatrikoak eta buruko gaixoaren eskubideak” txostena aurkeztu zuen.

Arrasateko Eskola Politeknikoa: Xabier Markiegik giza eskubideei buruzko hitzaldia eman zuen.

Santiago Konpostelako Unibertsitatea: Arartekoaren ondokoak, Mercedes Agúndezek, “Tolerantzia eta giza eskubideak” izeneko hitzaldia eman zuen unibertsitate horrek antolatu zuen jardunaldian.

¿Necesitas defender tus derechos ?

PUEDES ACUDIR AL ARARTEKO

- Para que investigue si la administración pública vasca ha cometido contigo algún abuso, arbitrariedad, discriminación, error o negligencia.
- Para que el Ayuntamiento, la Diputación o el Gobierno Vasco solucione tu problema si ha actuado incorrectamente.
- Para que recomiende mejoras en beneficio de todos.

¿QUÉ ES EL ARARTEKO ?

- Es el **Defensor del Pueblo del País Vasco**.
- Es una institución **independiente**.
- Es un servicio **gratuito**.

¿QUÉ HACE EL ARARTEKO ?

- Defiende a las personas frente a las administraciones públicas vascas.
- Hace de mediador entre los ciudadanos y la administración.
- Vigila y actúa para corregir situaciones irregulares.
- Propone soluciones y promueve modificaciones de las leyes.
- Informa de sus actuaciones al Parlamento Vasco.

¿CUÁNDO ACUDIR AL ARARTEKO ?

- Cuando tengas un problema con alguna administración o servicio público dependiente de ella.
- Después de haber reclamado ante la administración implicada y no haber obtenido respuesta o solución.
- Y dentro del plazo de un año a partir de ese momento.

¿CUÁNDO NO ACUDIR AL ARARTEKO ?

- Si el conflicto es entre particulares.
- Si el asunto ha sido planteado en vía judicial.

¿CÓMO PRESENTAR LAS QUEJAS ?

- Aportando datos personales (nombre, apellidos, dirección, teléfono), copias de documentos útiles y, cuando sea posible, un escrito con el motivo de la queja.
- Por carta dirigida al Ararteko (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Por internet desde la web: www.ararteko.net
- O bien, en persona, en cualquiera de las tres oficinas.

Zure eskubideak defendatu beharra daukazu ?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeke.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA ?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independentea** da.
- **Dohain** eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK ?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoaren kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA ?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA ?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGIN KEXAK ?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

¿DÓNDE ACUDIR?

Oficinas de atención directa

En Alava

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

En Bizkaia

Alameda de Mazarredo, 15 - 5° A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Fax: 944 24 18 44

En Gipuzkoa

Prim, 9 - entlo. izda. • 20006 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Fax: 943 42 72 97

Si necesitas más información, llámanos

¿NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Mazarredo, 15 - 5. A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Faxa: 944 24 18 44

Gipuzkoan

Prim, 9 - beheg. ezk. • 20006 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Faxa: 943 42 72 97

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



ARARTEKO